

BALOREZKO PROPOSAMENAK

Balorezko proposamena, bezeroek gure enpresa, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia da, eta lehiakideengandik bereizten gaituena. Honen arrazoia bi motatakoa izan daiteke: kuantitatiboa edo kualitatiboa.

Gure proiektua burutzean, ahalik eta arrazoi gehien bildu nahiko genituzke lehiakideengandik bereizteko eta erosleak erakartzeko. Gure proiektuko makinak burutzeko prozesuan hainbat datu hartu beharko ditugu kontuan, beraz. Hasteko ahalik eta gehien saiatuko gara diseinu berrien edo hobekuntzen informazio berria ipintzen, teknologia hobetzen doan heinean makinak ere hobetuz, eta noski erabiltzaileei hauei buruz informatuz; horrez gain, prozesu honetan makinariak ere hobetu egingo ditugu. Horrez gain, makina modelo ezberdinak eskaintzen ere saiatuko gara eta erosleei erosi behar duten makinaren pertsonalizazioa egiten uzten. Bestalde, makinek, erraz erabiltzeko makinaria izango dute, datuak argi adierazita egongo dira jendeak arazoak izan eza ditzan eta hezkuntza bat baina gehiagotan adieraziak egongo dira erabiltzaile mota ezberdinek erabiltzeko eskuragarri izan dezaten.

Hori horrela izanik, nahiz eta nahikoa segurtasun izan, gure web orriak kontsulta zatia izango du, hau da arazorik edo dudarik izan ezkerro hauek argitzeko aukera egongo da; hau horrela, makienek bi hilabeteetako segurua izango dute, erosleei arriskua murriztearren. Hori bakarrik ez, baina makinak munduko edozein tokitara bidaltzeko aukera ere izango du (bidalketa gastuekin, noski).

Hori gutxi balitz, prezio eskuragarri bat ipiniko dugu jendeak makinariak erosteko arazorik izan ez dezan, eta egoera ezberdinetan bizi diren pertsonen hauek erosteko eskuragarritasuna izan dezaten.